



ETAk berriro ere zapuztu egin ditu euskal gizarteak duen itxaropena eta borondatea euskal gatazka gainditzeko

ETAk su etenaren amaiera jakin arazi ondoren, STEE-EILASEk albiste tamalgarri honen aurrean bere gaitzespena eta kezka adierazi nahi ditu. Su etena apurtzeko erabaki honek berriro ere zapuztu egin ditu, joan den abenduan bezala, euskal gizarteak duen itxaropena eta borondatea, euskal gatazka gainditzeko.

Armen bidera itzultzearen ardura, soilik eta zuzenean ETARI dagokio, baita erabaki honek ekarriko dituen ondorio latzak ere. Ildo honetan, STEE-EILASEk behin betirako su etena aldarrika dezan eskatzen dio, indarkeriaren bidea erabat baztertuz, euskal gizartearen gehiengoak ere hala eskatzen baitio. Hain zuzen ere, ez dugu atentatu gehiagoren beharrik, traba besterik ez dira gatazkari konponbidea emateko.

Gaur zabaldutako albistea oso txarra bada ere, STEE-EILASEk berretsi egin nahi du egoera zail honetan inoiz baino beharrezkoagoa dela alde anitzeko elkarrizketa, bakea eta normalkuntza politikoa lortu ahal izateko. Izan ere, Euskal Herriko hiritar guztiok irrika handiz itxaroten dugu, indarkeria mota guztiak desagerrarazi eta inoren eskubideak urratuko ez diren eguna.

Beste aldetik, ezin dugu alde batera utzi espainiar gobernuak izan duen erantzukizun historikoa ere, duela hamalau hilabete hasitako prozesuari bidea zabaldu eta horretarako beharrezkoak ziren urratsak eman ordez, PP eta eskuin muturreko beste indarrei erreparatu dielako, euskal gizartearen nahiari baino.

Bilbon, 2007ko ekainaren 5ean.

STEE-EILASEko Nazio Batzorde Iraunkorra